




DHEO DURANGO
Hizkuntza Eskola Ofiziala Escuela Oficial de Idiomas

Matrikula zabalik

72,36€ ikasturte osoa

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45



Udalbiltzak euskarazko sormen lanak sustatzeko kultur proiektua aurkeztu du

Euskal Herriko 25-30 udalerriek parte hartuko dute eta Durango da euretariko bat.



Udalbiltzako eta udalerrietako kultur munduko ordezkariak, eguaztenean Plateruenean egindako aurkezpenean.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Udalbiltzak 2021a eta 2022aren lehenengo erdia hartuko dituen kultur proiektu berri bat aurkeztu zuen eguaztenean, Durangoko Plateruenean. Geuretik Sortuak izenagaz, euskara hutsean sortutako literatura, antzerkigintza eta zinemagintza sustatzea du helburu.

'Geuretik Sortuak' kultur proiektuan udalerriak bidelagun izango dituzte. Lurraldetasun orekari, tamainari eta aniztasunari erreparatuta, Udalbiltzak 25-30 herri aukeratu ditu eta eurak izango dira proiektutik aterako diren sormen lanen laborategi eta

eszenatoki. Durango da herri horietariko bat.

Beraz, herriak izango dira sormen lanen kokalekuak. Protagonistak, oster, deialdien bitartez aukeratuko diren 25 bat kultur gile edo talde dira, literatura, zinemagintza eta antzerkigintza arlokoak hain zuzen ere. Deialdia 2021eko lehenengo erdian abiatuko dute

2021eko lehenengo erdian deialdi publiko bat abiatuko dute kultur gileak aukeratzeko

eta kultur gile hasiberrientzat zein esperientzia dutenentzat egongo da zabalik.

Hautatutako kultur gileek egonaldiak egingo dituzte herri horietan. Kultur gile bakoitzak hainbat aste igaroko ditu herri horietan, bere artelana sortzeko: eleberri labur bat literaturaren kasuan, film labur bat zinemagintzaren kasuan edo antzezlan bat antzerkigintzaren kasuan.

Azkenik, sortutako lanak bildumetan batu (eleberri bat, film luze bat eta antzezlan bat...) eta Euskal Herriko herrietan erakutsiko dituzte, zirkuitu bat sortuz.



Irigarritasuna hobetzeko lanak egiteaz gainera, hornidura hobetu dute.

Azken ukituak baino ez dira falta San Faustoko auzo taberna berriro zabaltzeko

Udala birmoldaketa lanak amaitzen dabil. Bestalde, frontoian egokitzapenak egiteko lizitazioak hasiko ditu


DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak jakinarazi du San Faustoko taberna birmoldatzeko lanak amaierara ailegatzen dabilazala eta laster egongo dela lokal berritua prest. Irigarritasuna hobetzeko lanak egin eta altzariak berriro dituzte, besteak beste. "Gure ustez, ezinbestekoa da auzoek euren baliabideak izatea euren jarduerak garatu ahal izateko, eta, horregaitik, oso pozik gaude San Faustoko bizilagunentzat gune hori berreskuratzeaz", azaldu dute gobernu taldeko kideek. Taberna


ez da udala San Fauston egiten dabilen lan bakarra. Frontoia berritzeko lanak ere laster lizitatuko ditu. Teilatua konpontzeaz gainera, instalazio elektrikoak berrituko dituzte, kirola ez ezik kultur ekitaldiak ere egin ahal izateko bertan.

"Ezinbestekoa da auzoek euren baliabideak izatea euren jarduerak garatzeko; pozik gaude"

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com



zatoz gu ezagutzera

Jesusuitak
Durango



94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org

www.informazaitzez.eus

eskuan duzu aukera zaborra ala lurra



Hondakin organiko guztiak
konpost bihur ditzakezu.

Edukiontzia marroian utziz gero, ez
dira zabor bihurtuko. Lur gehiago
eta zabor gutxiago izango dugu.

Orain, eskuan duzu aukera.

Izen-ematea eta kita

Edukiontzia marroiek
giltza sistema dute.
Durangaldeko
Mankomunitatean izena
emandakoek soilik ireki
ditzakete.

Doako zerbitzua da.

Gainera, beharrezko materiala emango
dizu Mankomunitateak:

1. 10 litroko plastikozko ontzia,
taparekin eta aireztapenarekin.
2. Poltsa autokonpostagarriak.
3. Organikora bota daitezkeen
hondakinen zerrenda.
4. Edukiontzia zabaltzeko giltza.

Eman izena zuk ere

946 23 25 22

behargintza.mdurango@bizkaia.org

www.mdurango.org



Durangaldeko
Mankomunitatea
Mancomunidad
de Durangaldea

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Indarkeria matxistak eraildako emakumeak oroitzeko gunea inauguratu dute Durangon

Udal ordezkariak eta mugimendu feministako kideek inauguratu zuten gunea, zapatuan. Ambrosio Meabe kalean oroigarria ipini dute. Biktimen erreparazioa egiteko gunea da



DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Indarkeria matxistagaitik eraildako emakumeak oroitzeko asmoz, Durangoko Udalak eta herriko eragile feministek gunea bat atondu dute Ambrosio Meabe kalean. Zapatuan inauguratu zuten gunea eta bertan izan ziren udal ordezkariak eta Durangoko mugimendu femi-

"Gunearen helburua biktimei erreparazioa emateko printzipioa ezartzea izan da"

nistako kideak. "Gunearen helburua biktimei erreparazioa emateko printzipioa ezartzea izan da, prebentzio- eta esku-hartzeko politiken bidez, baina baita biktimen estatusa legitimatzen eta duintzen duten politiken bidez ere", adierazi zuten Durangoko Udaleko kideek.

Gizon bat atxilotu dute emakume bati sexu eraso egitea leporatuta

Durangaldeko herri batean bere bikotekide ohiaren kontrako sexu eraso egitea egotzita, 49 urteko gizonazko bat atxilotu zuen Ertzaintzak martitzenean, Bilbon. Epailearen aurretik igaro ostean, atxilotua "berehala" kartzelan sartzeko agindu zuen epaileak, Ertzaintzak ohar batean azaldu duenez.

Sexu eraso martitzenean gertatu zen, Durangaldeko herri batean. Biktimak Durangoko Ertzain etxean salatu zuen eraso, eta Ertzaintzak ikerketa bat abiatu zuen. Ustezko erasotzailea Bilbon aurkitu zuten, eta atxilotu egin zuten.

Durangaldeko pentsiodunek hainbat manifestaziora deitu dute zapatu eguerdirako

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko pentsiodunek "inoiz baino arrazoi gehiago" dituzte mobilizatzeko. Adibidez, Durangokoek. "Gizarte Segurantzza publikoa jasanezina" dela dioen esana "gezur handia" dela esan dute asteon. Horregaitik, 2010eko eta 2012ko lan-erreformak indargabetzea, gutxieneko

soldata 1.200 euroan ezartzea eta erreforma fiskal sakona egitea eskatuko dute, "gehien dutenek gehiago ordaindu dezaten".

Zapatuan egingo dituzte mobilizazioak. Durangon eta Elorrioren 12:00etan manifestatuko dira, eta 13:00etan Zaldibarren. Iurretan eta Zornotzan kontzentrazioak egingo dituzte, 12:00etan.



Iurretako Udalak %17 igoko du arlo sozialerako diru poltsa

2021erako 5,55 milioi euroko udal aurrekontua onartu dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Gaur egungo osasun krisiari egokitutako udal aurrekontu "zuhurra" onartu du Iurretako udalbatzak asteon. Udalak 5,55 milioi euro izango ditu 2021ean; aurtengoagaz alderatuta, %6 jaitziko da aurrekontua. Inbertsioen atalean igarriko da gehien: aurtun, 850.000 euro izan dituzte inbertsioetarako; 2021era begira, 350.000 euro lotu dituzte (%43 gutxiago). Bestalde, osasun krisiak eragindako egoera sozial eta ekonomikoei erantzun ahal izateko, arlo sozialean %17 igoko dute diru poltsa datorren urtean.

Inbertsioen atalari dagokionez, dirurik gehien Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) garatzeko, Maiztegin eta Etxegon hobekuntzak egiteko eta aurrekontu parte hartzaileetarako

izango da. Baita azpiegitura eta eraikinen mantentze-lanetarako ere. Iñaki Totorikaguena alkateak adierazi du kultur eta agenda soziala mantendu egingo direla, eta tokiko-merkataritzarako laguntzak bikoiztu egingo direla.

2021era begira, 350.000 euro lotu dituzte inbertsioetarako, aurtun baino %43 gutxiago

EH Bilduk eta PSE-EEK eginda-ko ekarpenak batuta udal kontuak "hobetu" diren arren, EH Bildu abstenitu egin da. Gazteei eta nagusiei zuzendutako hainbat jarduerari eustea eskatu du koalizioak.



Ambrosio Meabe kalean ipini dute oroigarria.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko abenduaren 4a
19. urtea - 831. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



www.gualbiasesores.com

- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

**Bezera, bere enpresako kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

Azterlaneko beharginek ariguneak sortu dituzte Euskaraldian, lanean euskararen erabilera bultzatzeko

Enpresetan ariguneak sortzea izan da Euskaraldiaren erronketariko bat. Lan hizkuntza euskara izateko pausoak eman dituzte hainbat lantokitan

DURANGO • JONE GUENETXEA

Euskaraldiak mingainak dantzan ipini ditu. Ahobiziak eta Belarriprestak bizi-bizi ibili dira. Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak bere bigarren edizioan izan duen berrikuntza handienetarikoa bat ariguneena izan da. Euskaraz jarduteko guneen sorrera komertzio eta elkarteetara ez ezik, enpresetara ere zabaldu da. Lan arloan euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko ariketa egin dute Durangoko Azterlan Zentro Teknologikoan.

Olatz Garro Azterlaneko komunikazio arduradunak azaldu duenez, orain urte biko Euskaraldian hainbat langilek bat egin zuten ekimenagaz maila indibidualean. Aurtan, parte hartzeko gonbita jaso zuten Mankomunitatetik, eta baiezkoa ematea erabaki zuten.

137 pertsona dabilta lanean Azterlanen. "Lantaldeko ehuneko handi bat euskalduna da eta inguruan bizi da. Hasieran kosta egin zitzaigun ariguneak identifikatzea. Espazio zabaletan lan egiten dugu-



Euskaraldiagaz bat egin duten Azterlaneko langileek familia argazkia atera dute.

nez, erabaki genuen ingurukoen artean ariguneak sortzea", dio Garrok. Euskaraldia lantzen hasi zirenean, COVID-19aren hasiera zen eta zailtasunak izan zituzten, egoerak berak eraginda. Baina, zelan edo halan, lortu dute ariguneak sortzea eta martxan ipintzea. Egunotan ilusioz ekin diote.

52 lagunek izena eman dute (6 Belarriprest eta 46 Ahobizi). "Euskaraldiko egunak igarri dira. Jendeari Belarriprestak ikusteak ilusioa egin dio. Ikustea norberaren lantaldean aurretik detektatu barik zeniten Belarriprestak daukela poza ematen du", gaineratu du Garrok.

Hizkuntza teknikoa

Azterlanek dituen lan esparru teknikoa eta bezero mota direla-eta, askotan gaztelaniaz edo ingelesez berba egiten dutela gogoratu du komunikazio arduradunak. Hala ere, beste bezero asko euskaldunak izaten dira. Solasaldiak euskaraz hasten diren arren, askotan gaztela-

niara pasatzen direla aitortu du Garrok. Horixe da erronka, hain zuzen ere. Solasaldi informaletatik harago, enpresetako lan hizkuntza euskara izatea. Baina pausoz pauso egiten da bidea, eta Euskaraldiak lehenengo bultzada eman dio helburu horri. Orain, lortutakoari urteko gainerako egunetan eustea geratzen da.

"Euskaraldiko egunak igarri dira. Belarriprestak ikusteak ilusioa egin dio jendeari"

ALB ERDI HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

Eskerrik asko, Durango!

Cugatik egiten duzuna eskertzeko ordua heldu da...
Jarraitu herrian erosten
eta sari guzti hauek irabazi!

SARIAK	
Sari 1 · 1.000€	2 Sari · 500€
10 Sari · 100€	100 Sari · 20€

*Deskontu baleak izango dira.
Eta beste hainbat sari!

DURANGO Ustea · Agintaririk
EUSKO INDIARITZA GOBIERNO VASCO
Dendak Bai durango

f i y Dendak Bai 688 738 102 www.dendakbai.eus

Bizkarra jatetxea

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO
Tel.: 946 812 026

Ezin bazara Urkiolara etorri, zaude lasai. Geuk eramango dizugu eguneko menua (11,50 €) etxera. Baita menu bereziak ere. Egin eskaera aurreko egunean, whatsapppe (689802937) edo telefonoz (946812026)

MARTXAN JARRAITZEN DUGU, ZURETZAKO LAN EGITEN...
ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO, ZURE ZAIN GAUDE!

ZABALIK GAUDE!

saltsan HONKANTZAN

Kurutziaga, 40 (Durango) - 946 200 427 - 688 773 205 - saltsan@saltsan.com



Abadiñoko merkatariak eta udal ordezkaria bonuen aurkezpenean.

Udalak 1.793 bonu banatu ditu erosketak Abadiñon sustatzeko

38 denda, taberna eta jatetxetan erabili ahalko dira bonuak, urtarrilaren 6ra arte

ABADIÑO • A.M.

Erosketak herrian bertan egitea sustatzeko helburuagaz, Abadiñoko Udalak Gabonetako bonu kanpaina kaleratu du. "Horrelako egitasmoak garrantzitsuak dira Gabonetan herriko dendetako salmentak bultzatzeko eta herritarrek aukera izan dezaten Gabonetako erosketak egiteko", azaldu du Iñaki Rekalde Ogasun, Ekonomia Sustapen eta Enplegu arloko zinegotziak. Iraileko kanpainan, 1.975 herritarrek 2.287 bonu erabili zituzten. Kanpaina honek 45.000 euro inguruko kos-

Kanpainak 45.000 euro inguruko kostua izango du; irailean 1.975 herritarrek erabili zuten

Bonuak udaletxean, Udal Mediatekan edota Errota kultur etxean jaso daitezke

tua izango du Abadiñoko Udalarentzat. Guztira, 38 denda, taberna eta jatetxetan erabili ahalko dira bonuak, 2021eko urtarrilaren 6ra arte. Bonuak koloreka banatu dituzte (urdinak, 553, 18 urtetik gorakoentzat; berdeak, 640, 65 urtetik gorakoentzat; arrosak, 600, langabeentzat). Hurrenez hurren, 5, 30 eta 40 euroko deskontuak edukiko dituzte 10, 40 eta 50 eurotara heltzen diren erosketetan.

Bonuak udaletxean, Udal Mediatekan edota Errota kultur etxean jaso daitezke.

Zaldibar Argituk mobilizazioak iragarri ditu domekarako

Artia autobus geltokian ipini dute hitzordua, 13:30ean; hamar hilabete igaro dira Zaldibarko lur-jausitik

ZALDIBAR • A.M.

Otsailaren 6an hondakindegia amildu zenetik hamar hilabete igaro direla gogoratzeko, hainbat herritan mobilizazioetara deitu dute. Durangaldean, Zaldibarren bertan egingo dute protesta. Hitzordua Artia autobus geltokian ipini dute, 13:30ean. Joaquín Beltranek desagertuta jarraitzen duela salatuko dute besteak beste, eta erantzunik barik jarraitzen duten galderentzat erantzunak eskatuko dituzte beste behin ere.

Ikerketa European

Europako Batzordeak 'Zaldibar auzia' ikerketa abiatuko duela esan du. Zaldibar Argitu plataformak eta Ekologistak Martxan elkarteak eskaria aurkeztu zuten Europako Batzordeko Eskaren Batzordean, eta tramitera onartu dute. Zabortegian gertaturikoa eta hondakinekin eginiko gestioa ikertuko dute. Urtarrilaren 21aren aurretik eman beharko dute azalpena.




Aurreko mobilizazio bateko irudia.



MAÑARIKO UDALA

946 818 998
www.manaria.org





OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ



R.P.S. 214/06

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

uxarte
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com



ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN
ASTEAN ZEHAH ENKARGUZ
Gutxienez 15 laguneko taldeentzako

“Elorriar batzuek Anboto tontorrean itxaron ziguten guk laugarren igoera egin arte”

Ainhoa eta Jon Abendibar neba-arrebek zortzi bide desberdinetatik igo edo jaitsi dute Anboto mendia, ibilbideari lore forma emanda



Jon Abendibar eta Ainhoa Abendibar igoeratariko batean, Anboto tontorrean.



Ibilbide bateko tarte batzuetan eskuekin lagunduta igo behar izan zuten.

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Ainhoa Abendibar (Atxondo, 1975) eta Jon Abendibar (Atxondo, 1973) neba-arrebek erronka kurioso bat egiteko baliatu dituzte Anboto mendirako igoerak. Orain asteburu bi, zortzi bide desberdinetatik igo eta jaitsi ziren eskualdeko mendirik garaienera, eta ibilbide osoari lau hostoko lore forma eman zioten. Wikiloc aplikazioan ikusi daiteke irudia.

Zelan sortu zitzaizuen ideia?

Jon Abendibar: Gazte-gaztetan ez genuen Anbotoa joateko ohitura handirik. Baina hor egon da beti. Apatan bizi ginenean etxetik ikusten genuen eta miresmen berezi bat izan diogu. Gaur egun Ainhoa Abadiñon bizi da eta ni Apatan. Hartu-eman ona bai, baina esturik ez geneukan. Orain urte bi eta erdi, Ainhoak asko lagundu zidan nire bizitzako etapa batean,

eta elkarregaz gehiago egoten hasi ginen. Anboto mendia izan zen gerturatu gintuena.

Ainhoa Abendibar: Anboto igotzen hasi ginen. Behin igotzea labur geratu zitzaigunean, egun berean birritan igotzea pentsatu genuen. Hasieran, Anbotoa igotzen hasi ginenean, ez genuen buruan ibilbideari lore forma ematea. Urtarrilean, nire urtegunean, Jonen oparia jai hartzea izan zen eta nigaz Anboto hiru bider igotzea. Gero, elkarregaz bazkaldu genuen. Igoerak bide desberdinetatik egin genituen, eta baita jaitsierak ere. Beraz, sei bidetatik igo eta jaitsi genuen Anboto, sei ordu eta erdian. Orduan ere ez geneukan lorearen kontua buruan. Egin eta gero konturatu ginen lorearen formaz. Oso polita iruditu zitzaidan eta niretzat egun berezia izan zenez, besoan tatuatu nuen. Eguna nahiko fresko amaitu genuen eta lau igoera egitea pentsatu genuen. Kasu honetan, bai, kasu honetan formaren bila joan gara.

Lau hostoko loreak zortzi bide eskatzen ditu. Erronka izan da bide denak planifikatzea?

J.A.: Ibilbide batzuetan errazagoa da igotzea jaistea baino. Kontua da zortzi bide egiteko eta lore formari eusteko, aurreko aldian igotako leku batetik jaitsi beharra zegoela oraingoan. Hiru bider joan ginen toki horretara jaitsiara on bat bilatzeko.

Bide berriren bat 'zabaldur' duzue?

A.A.: Ez, guk ez dugu biderik zabaldur. Oso ezagunak ez diren pare batetik ibili gara, besterik ez.

J.A.: Esaterako, orain dela gutxira

arte Anboto hegaldetik igo barik geunden eta Wikiloc-en erreferentzia bakarra aurkitu genuen. Baina gutxien-gutxien markatuta dagoen bidea ipar-ekialdekoa da, Arrazola parterantz ematen duen mendi-hegalekoa. Ez dago bide garbirik eta norberak bilatu behar du.

Zelan joan zen eguna bera?

J.A.: Oso ondo. Anekdotak polit bat gertatu zitzaigun gainera. Orain aste batzuk, bideak prestatzen genbiltzala, elorriar batzuk ezagutu genituen eta gure asmoa kontatu genien. Bada, erronka egunean, hirugarren igoera egin genuenean, tontorrean aurkitu genituen. Eta, gure sorpresarako, bertan itxaron zuten guk laugarren igoera egin arte. Politak izan zen.

Bost hostoko lorea egitea buruan darabilzuen ideia da?

A.A.: Gatxa da, beste bide bi behar direlako.

J.A.: Ez da buruan darabilan zerbait.

A.A.: Erronka egunean hainbat kobazulotatik pasatu ginen eta komentatu genuen udaberrian errepikatu egin dezakegula ibilbidea, egunak luzeagoak direnean, baina ahalik eta kobazulorik gehienetatik igarota.

Ibilbidea Wikiloc-en dago errepikatu gura duenarentzat.

A.A.: Bai, pentsatu izan dugu hori eta, egia esan, hiru hostoko ibilbidea hainbatek deskargatu dute. Gure herritik irten ezin dugun egoera honetan, inguruko mendizaleentzak aukera polita da.


Gomendiorik?

J.A.: Ohitutako jendea bada, ez du arazorik izango. Toki batzuetan eskuekin lagundu beharra dago. Ez dira toki arriskutsuak, baina kontuz ibiltzea komeni da.

A.A.: Etxe ondoan dagoenez, abantaila handi bat ikusten diot. Igoera bat egin eta ondo zaudela? Bada, aurrera. Nekatuta zaudela? Etxea alboan dago eta beste edonoz itzuli zaitezke.

Baduzue bestelako erronkarik buruan?

J.A.: Joan zen asteburuan, Jonek, aitak, amak eta laurok igo genuen Anboto. Aitagaz behin igota nengo, eta Jon beste behin amagaz. Baina tontorrean sekula ere egon barik geunden laurok batera.



Wikiloc-eko irudia; Anbotorako zortzi bideak tontorrean batzen dira ibilbideri lore forma emanez.

AHOLKULARITZA
PROFESIONALA

BERRIKUNTZAK
DITUGU

**AZKEN
BELAUNALDIKO
PINTURETAN
PINTURA
EKOLOGIKOETAN
ORBANEN
KONTRAKO
PINTURETAN**

Eraikinen isolamendu termikoa
eta energia-efizientzia

Montorretas Ind. 9-F Pab. DURANGO
Tel.: 946 217 911



Garaiko udalbatzaren osoko bilkura bat, iaz.

Garaiko udaletxean eta kultura etxean eguzki panelak ipiniko dituzte

Garaiko Udalak 2021eko aurrekontuak onartu ditu. Udal eraikinak energia berriztagarri hornitzeko erabakia hartu dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Aho batez eta energia berriztagarrien aldeko apustua eginez. Garaiko Udalak 2021erako aurrekontuak onartu ditu, bertan energia garbiagoen alde egiteko asmoa islatuta. Udalak eguzki panelak ipiniko ditu bere eskumenekoak diren eraikinetan, hau da, udaletxean eta kultura etxean. 25.000 euroko diru partida ipiniko du horretarako.

Ez da egitasmo isolatua izango. Udalak beste aurreikuspen batzuk egin ditu klima aldaketaren aurkako konpromisoari lotuta. Datorren udazkenean zuhaitzak landatuko ditu 14 futbol zelairen pareko azalera batean. Zuhaitz autoktonoen eta hazkunde moteleko zuhaitzen (haritzak, pagoak, gaztainondoak, lizarrak...) azalera beste 9 hektareatan handituko du, eta pinu espezieak dibertsifikatuko ditu 5 hektareako beste azalera batean. Azken horietan, jasangarriagoak diren pinuak sartuko dituzte, itsas eta japoniar pinuak esate baterako. Udal iturriek azpimarra berezia egin dute eukaliptoan. Herri basoetan ez dela eukaliptorik landatuko arerraratu du udalak, "espezie horrek ondorio larriak eragin litzake eta ingurumenean".

Beste proiektuak

Garaiko Udalak beste hainbat lan ildo zehaztu ditu datorren urteari begira. Udal tasa eta zerga guztiak dauden-daudente utziko ditu 2021eko ekitaldian. Lehendik dagoen enplegu publikoari eutsiko dio eta sustapen politikak garatuko ditu udalerriko jarduerak ekonomikoa bultzatzeko. Azpiegitura publikoak hobetzeko jarduketan

Udal tasak eta zergak dauden-daudente uztea erabaki dute Garaiko zinegotzi guztiek

Ez dute eukaliptorik landatuko, ingurumenean "ondorio larriak" eragin ditzakeela iritzita

artean, ur-hornidura hobetzeko lanak nabarmentzen dira. Beste lan batzuk irisgarritasuna eta bide-segurtasuna hobetzeko lanei lotuta daude. San Migel nagusien elkarteari edo triatloi taldeari lotutako diru partidak ere badaude aurreikusita.

Guztira, 699.950 euroko aurrekontuak izango dira.

Zornotzan zabalik dago Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko epea

Abenduaren 11ra arteko epea dago eskariak egiteko



Eskariak Herritarren Arreta Zerbitzuan egin daitezke.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzan zabalik dago Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko epea. Abenduaren 11ra arte egongo da eskariak egiteko epea. Udaleko iturriek azaldu dutenez, "laguntza hauek etxebizitzak sortzen dituen gastuak arintzeko dira", hala nola alokairuarena eta hipoteka-kredituena, eta baita hornidura eta mantentze-gastuak, eta altzarien, etxetresna elektrikoaren edo oinarritzko konponketen gastuak estaltzeko ere. Horrez gainera, Zornotzan erroldatutako pertsonen lehen mailako premien gastuak estaltzeko ere balioko dute laguntzak.

Eskariak Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan egin beharko dira. Horretarako, aurretiazko hitzordua eskatu behar da [amaz@amorebieta.eus](mailto:haz@amorebieta.eus) edo [amaz@amorebieta.eus](mailto:haz@amorebieta.eus) helbide elektronikora mezua bidalita.

Datorren urteari begira, Gizarte Larrialdietarako diru laguntzen partida handitzea erabaki du udalak. 300.000 euroan handituko dute aurreko urteko kopurua.



SAN ANTONIO IKASTETXEA
Irakasleon Kooperatiba



San Antonio ikastetxeko IRAKASLEON KOOPERATIBA. Durangar batzuk agian oraindik ez dakite San Antonio ikastetxea gaur egun irakasleon kooperatiba denik. Ehun urte baino gehiago martxan egon ondoren, erlijioak irakaskuntza utzi behar izan zuten eta irakasleengan ipini zuten konfiantza, haiek hasitako proiektu hezitzaileekin jarraitzeko.

Zer suposatzen du kooperatiba bihurtzeak? Lan ta lan! Lana, bai, baina itzelezko ikasketa eta bizipena ere bai. Gaur egun, irakasleak ez ezik, kooperatibistak, administratzaileak, kontratistak, abokatuak, arriskuaren prebentzioarako teknikariak, segurtasun eta osasun adituak, bitartekariak... gara.

Kooperatiba izateak denon parte hartzea eskatzen du eta lana eta antolaketa sistema berezia behar du kooperatibista guztion auzotzatik eta talentuak bideratzeko eta garatzeko. TALDE LANA; eskolan taldeetan antolatzen gara, eremu pedagogikoa koordinatzeko, eremu administratiboa kudeatzeko eta baita gela barruan ikasleekin lan egiteko ere.

Esan bezala ikastetxeko kide guztiak beharrezkoak dira proiektua aurrera eramateko eta momentuak eta espazioak ziurtatu behar dira denon ahotsak entzun daitezkeen. Gure eskolan, aspaldi erabiltzen dira ikasketa kooperatiboko teknikak getan eta gaur egun ere, egoera berezi honetan, taldeak lan egitea da gure helbururik nagusienetako bat. Taldeak garrantzi izugarria du egunerokotasunean: gelako talde txikiak, gela osoak, burbuila taldeak, kudeaketa taldeak, talde interdisziplinariak. Gure ikasleak GARAPEN INTEGRALA lortzeko daukagun errazgarritasun onena da taldeko lana.

Baina gureak EKIPOAK dira. Helburu bera duten pertsonen taldeak dira ekipoak. Familia txikiak dira eta horiek bezala, kide

guztien onurarako egiten dute lan elkarrekin, inor bidetik kanpo utzi gabe...

Zer gehiago esan honi buruz gaur egun bizitzen ari garen pandemia egoera honetan! Ekipoak, taldeak, familiak beharrezkoak izango dira krisialdi honetatik irteerako. Denok helburu baten inguruan lan egin, ondokoari eutsiz eta ondokoarengan babesa eta sostengua bilatuz. Esaera afrikarrak esaten duen bezala: Bakarrik arinago, taldean hurrinago. Elkarlana ezinbestekoa izango da zailtasunak gainditzeko eta ekipoen beharra izango dugu hurrengo hilabeteetan zehar indartsu eusteko. Giza kateak sortu behar ditugu eta horietan denon lana eta ardura ezinbestekoa izango da: familiak, irakasleak, ikasleak, Durango...

Gure ekipoek taldeak egingo dute lan, baina gizarte osoa bistatik galdu barik. Durangon errota gaudela eta Durangarrek batera Durangarren alde egingo dugu lan gure herritarren ongizatea bultzatzeko. Krisialdi honetan ezin gara behar den moduan komunikatu, ezin dugu elkar besarkatu, ezin dugu elkar lastandua, baina elkar MAITA dezakegu. Begiekin barre egin, begiekin lastandua eta begiekin besarkatu. Birus honek ezin izango du umeen begien argia amatatu eta argi horrek argituko digu bidea.

Abiatu gaituzen eskutik helduta, katea sortuz, elkarren artean gure burua babestuz eta gure arima zainduz. Taldearen indarrak bultzatuko gaitu aurrera. Elkarrekin egin dezagun lan, KOOPERA dezagun, gure umeen begiraden argiak piztuta jarrai dezagun. Ziur gaudela argi horrek egun hauetako iluntasuna argituko duela. AURRERA EKIPO!!

Ana Sagastizabal- Irakasleon kooperatibaren lehendakaria

Balbino Garitaonandia 3 - 48200 DURANGO - Bizkaia
Tel: 94 681 67 76 - Fax: 94 681 41 61 - ikastetxea@sanantonio.eus
www.sanantonio.eus



Gure Artean, Elorrioko hiru artisau eta sortzaileraren lanak plazaratu dituen denda

Agtz Prints, Eguzkilore eta Kenikako sortzaileek zabalduko denda abenduaren 17ra arte egongo da zabalik



Ezkerretik hasita, Aurkene Pagaldy, Agurtzane Ugalde eta Itziar Arbulu.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gabon sasoi oso garrantzitsua izaten da artisau eta sortzaile askorentzat, urteko sasoirik inportanteenetariko bat. Baina aurtengoa

rrak, gure lanak kalean daude eta elorriarrek herriko plazan aurkitu ditzakete", adierazi du Aurkene Pagaldy sortzaileak.

Herriko plazako denda, inpresio artistikoagaz egindako kamisetak eta poltsak, mineralekin egindako bitxiak eta zilarrezko bitxiak aurkitu daitezke. Agtz Prints, Eguzkilore artisautza eta Kenikakoek Gure Artean dendatik pasatzeko eta produktuak ikusteko gonbita egin diete herritarrei.

Abenduaren 17ra arte zabalik

Printzipioz, denda abuztuaren 17ra arte egongo da zabalik. As-telehenetik zapatuta 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. "Abenduaren 18tik 22ra, Eixuk Durangon antolatu duen Azokan egongo gara, eta hori dela-eta denda abenduaren 17ra arte izango dugu zabalik", jakinarazi du Pagaldy. Hori da euren asmoa, hilaren 17ra arte izatea zabalik, baina gauzak ondo badoaz eta dendagaz pozik badaude aurrerago ere berriro zabaltea baloratuko dutela azaldu dute.

Inpresio artistikoak, zilarrezko bitxiak eta mineralekin egindakoak saltzen dituzte denda

egoera berezia da, eta hori dela-eta Elorrioko hiru emakumek indarra batu eta Gure Artean denda zabaldu dute. "Azoketan saltzen ibiltzen gara, baina ikusita azokarik gehienak bertan behera geratzen dabilzala, denda zabaltea erabaki genuen. Horrela, denda honi eske-

Berrizko Udalak 50.000 euro ipiniko ditu ostalariei laguntzeko

Herriko ostalariek 20 eguneko epea izango dute eskaerak aurkezteko; udaletxean aurkeztu beharko dituzte

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak 50.000 euro ipiniko ditu COVID-19ak herriko ostalariei, jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuetako mikroenpresei eta pertsona autonomoei eragindako ondorio ekonomikoak arintzen laguntzeko.

Udaletik azaldu dutenez, honako hauek jaso ahalko dituzte laguntzak: sektore horretako ostalaritza, jatetxeetako zerbitzua eta estable-

zimenduaren jarduera Berrizen garatzen dutenek. Hala ere, baldintza hauek ere bete behar dituzte: euren eragiketa bolumena 2 milioi eurotik gorakoa ez izatea eta 10 langile baino gehiago ez izatea.

Laguntzen zenbatekoa honakoa izango da: langile bat eta 3 langile-ren artean dituzten enpresek 1.000 euro jasoko dituzte, eta 3tik 10 langilera bitarteko enpresek, 1.500 euro.

Atxondoko Udalak Axpeko jolas parkea berriztuko du

Herritarrek aurrekontu parte hartzaileetan eskatutako eskaria dela jakinarazi dute Atxondoko Udaletik

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak bigarren aurrekontu parte hartzaileen prozesua zabaldu zuen abuztuan, eta hogeit hamar proposamen jaso zituen. Udaletik azaldu dutenez, Axpeko haurren jolasgunea hobetuko dute, bideragarritasun tekniko eta juridikoa berrikusita. "Egia da haurren jolasgune honek okerrera egin duela denboraren poderioz, eta, beraz, beharrezko hobekuntzak egingo

ditugu auzotarren eskariari erantzunez", azaldu du Xabier Azkarate alkateak.

Bestalde, proposamenen artean skate parke bat eta estalitako parke bat sortzea ere badaudela azaldu dute. "Datorren urteko aurrekontuetan Pump Truck parkearen sorrera sartu dugu, liburutegiaren ondoan egongo da, eta laster eskoletako jolasgunea ere estaliko dugu", gaineratu du alkateak.

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROK

Lanbide k.	IKASTAROA	Orduak
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK		
	Erakundearen eremuko esku-hartzeak antolatzeko laguntza (MF1016_2)	100
OC20483844	Laguntza psikosoziala eta harreman eta komunikazio-arreta erakundeetan (MF1019_2)	130
FABRIKAZIO MEKANIKOA		
19480011	Piezak txirbil-harroketara bidez egiteko CNC programak egitea (UF0879)	80
18480172	Fabrikazio mekanikoko produktuen automatismoen diseinua (UF0450)	50
	Soldadura karbono-altzairuzko xafila eta profilez estalitako elektrodoekin eta oinarritzko elektrodoekin (UF1624)	90
OC20483839	Soldadura karbono-altzairuzko xafila eta profilez estalitako elektrodoekin eta errutilozko elektrodoekin (UF1623)	90
OC20483840	Autocad	40
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA		
19480015	Automatizazio industrialeko sistematan matxurak diagnostikatzea eta mantentze zuzentzailea egitea (UF2238)	90
INSTALATZEA ETA MANTENTZEA		
18480170	Linea automatizatueta funtzionamenduaren programazioa eta kontrola (UF0626)	70
PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIAK Langabetuak (praktikak enpresan)		
20485004	Ekipu industrialaren mantentze lanak eta muntaketa mekanikoa (IMAQ0108)	510
20485121	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208)	370

Izen ematea:
www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)

OHARRA: Taldeak sortu ahala, hasiko dira ikastaroak.

Urritxe auzunea, z/g - Tfno: 688 665 300 - 946 730 251
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
e-mail: maranburu@fpzornotza.com • www.fpzornotza.com



Otxandioko Elizalde kalean ikusi daiteke horma irudia.

'Euskara, bestela ez gara' izeneko horma-irudia marraztu dute asteen Otxandion

Irantzu Lekue margolari gasteiztarraren diseinua da; herritarrek margotzen lagundu diote

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Lau metro garai eta hoge metro luze den horma-irudiak euskaldun izatearen altxorrik handiena zein den gogoratuko du aurrerantzean Otxandion. 'Euskara, bestela ez gara' leloa irakurri daiteke Irantzu Lekue gasteiztarrak diseinatu eta pintatu duen horma-irudian.

Inguruko mendiak eta natura herriguneagaz lotzen ditu irudiak. "Gure hizkuntzak antzinatek gaur egunera izan duen bidea erakutsi

gura izan dut, mendi giroan sortu zenetik herrietan garatu zen arte", azaldu du Lekuek. Irudiko albo batean Vulcano iturria ageri da.



IRANTZU LEKUE

"Iturritik urak etenik barik jarioan irteten duen moduan, euskararen erabilerak ere etenik bakoa izan behar lukeela islatu gura du", dio.

Herritarrek margotzeko aukera izan dute. Joan zen barikuan eskolako ikasleek, eta asteburuan herritarrek.

Lekuek makina bat margo-irudi egin ditu; tartean, bi Iurretan. Orainsu Katalunian izan da horma-irudi bat egiten, eta hurrengo Berriatuan egingo du.

Adin guztietakoak erakarri eta "eremu zabalagoa" bihurtu gura du Otxandioko gaztetxeak

Gaztetxeak 20 urte egingo ditu 2021ean eta hausnarketa prozesu bat garatu dute

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko gaztetxearen 20. urteurrenara begira ekitaldi sorta

antolatzeko asmoa dute bertako kideek. Horrez gainera, aurrera begirako helburuak zehazten ibili



dira eta joan zen domekan euren berri eman zuten plazan egindako aurkezpenean. Alde batetik, gazteen "saretzea" eta gazteen artean "begirada kritiko bat" garatzea "beharrezko" ikusten dute.

Orain arte gaztetxea gazteentzako etxe moduan ikusi den arren, ikuspuntu hori "zabaltu" gura dute. "Adin guztietako jendea zabaldu gura dizkiogu ateak. Gaztetxeak eremu zabalago bat izan gura du, gizarte osoari eragiten dieten problematikei aurre egiteko leku bat.

Jaurlaritzak tarteko radar bat ipiniko du Trabakuan, istripu kopurua jaisteko

MALLABIA • J.D.

Jaurlaritzak tarteko radar bat ipiniko du BI-633 errepidean, 37-40 puntu kilometrikoen artean, hau da, Trabakua gainean. Radarra ipintzeko data "oraindino zehaztu" barik dago, Segurtasun Saileko arduradunen esanetan. Tarteko radarrak puntu

Ibilgailuen tarteko abiadura neurtu eta batez besteko bat ateratzen du radar mota honek

bitan hartzen du ibilgailuaren abiadura, eta batez bestekoa ateratzen du. 2010ean, mota honetako lehenengo radarra ipini zuten N-1ean, Ordizia eta Irura artean, eta urtebetean egon zen indarrean. Oraingo hau mota horretako bigarrena izango da.

Istripuak 2018tik hona

Ibilgailuen abiadura kontrolatuta, tarte horretan istripu kopurua gutxitzea da radarraren helburua. Segurtasun Saileko datuen arabera, 2018an istripu bat gertatu zen tarte horretan; zauritu bat egon zen. 2019an zortzi istripu gertatu ziren; pertsona bat hil egin zen. 2020an ez da istripurik gertatu oraindino.

Ettxerik etxeko banaketa, Mañariko denda berrirako eskaeratariko bat

MAÑARIA • J.D.

Herritarrek Mañariko etorkizuneko dendaren gaineko iritzia emateko aukera izan zuten astelehenean, plazan egindako prozesu parte hartzaile baten bitartez. 24 herritarrek parte hartu zuten eta jasotako iritzi asko bat datoz aurretik Internet bidez jasotakoagaz.

Interneten bitartez parte hartu zutenen artean, zerbitzu berriei buruz galdetuta, etxerako zerbitzua bermatzea da eskatuenetariko bat, batez ere adineko pertsonen begira. Hauek dira, euren ustez, dendan egon behar liratekeen produkturik oinarritzkoenak: fruta eta barazkiak, haragia (txarkuteria), ogia, esnea eta esnekiak. Iritzia emandakoen %83k uste dute produktu ekologikoak egon behar liratekeela denda berrian. Gaur egungo produktu batzuen barietatea murriztu eta beste batzuei tokia egitea ere begi onez ikusiko lukete.



Aurten ere bere horretan utziko dituzte zergak eta tasak Izurtzan

Udal kontuak "ondo" daudelako hartu dute erabakia

IZURTZA • J.D.

2021eko ordenantza fiskala bere horretan mantentzea erabaki dute Izurtzan. Beraz, tasetan eta zergetan ez da aldaketarik egongo eta izoztu egingo dituzte. "Udaleko kontuak ondo daude eta ez dugu zergak eta tasak igotzeko beharizanik ikusi. Horregaitik,

bere horretan mantentzea erabaki dugu. Herritarrei laguntzeko modu bat da", azaldu du Lorea Muñoz alkateak.

Ordenantza fiskalak erabakita, gaur arratsaldeko udalbatzarrean datorren urtera begirako udal aurrekontuak eztalaidatuko dituzte Izurtzan.



Gauaigi
Dantzari, 4 - behea
IURRETA



Egunero zabalik
Domeketan eta jaiegunetan rabak
Astelehenetik ostiralera: Menu erdia 6€-tan
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak




INFORMAZIO OROKORRA
900 100 000
www.nacex.es

San Roke, 10-12 DURANGO
Tel.: 946 200 162 / Mob.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es

BURUARI KLIK!

LEKUZ KANPO

Beheko irudietatik zeintzuk topatu daitezke logela batean?



ZENBAT DAKIZU?




1.- Zein tenperaturatan izozten da ura?

- a-) 5°-tan
- b-) 0°-tan
- c-) -12°-tan

2.- Noiz hasten da negua?

- a-) Abenduaren 15ean
- b-) Urtarrilaren 1ean
- c-) Abenduaren 21ean

				1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28
29	30	31					



3.- Noiz aldatzen da neguko ordutegia?

- a-) Urriko azken domekan
- b-) Abenduko lehenengo astelehenean
- c-) Beti urtarrilaren 1ean

4.- Zein animaliak hibernatzen du negu osoan?

- a-) Lehoiak
- b-) Hartzak
- c-) Ahateak



5.- Nortzuek egiten dituzte etxeak izotzagaz?

- a-) Amazonaseko tribuek
- b-) Eskimalek
- c-) Nomada guztiek



Botikak	
BARIKUA, 4 - 09:00-09:00	
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 7 - 09:00-09:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
ZAPATUA, 5 - 09:00-09:00	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	09:00-22:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
09:00-13:30	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	MARTITZENA, 8 - 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	09:00-22:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 9 - 09:00-09:00
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	09:00-22:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	EGUENA, 10 - 09:00-09:00
09:00-22:00	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 6 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Eguraldia	
ZAPATUA 🌡️ 8° / 5° 🌧️	MARTITZENA 🌡️ 10° / 5° 🌧️
DOMEKA 🌡️ 8° / 6° 🌧️	EGUAZTENA 🌡️ 9° / 5° 🌧️
ASTELEHENA 🌡️ 9° / 6° 🌧️	EGUENA 🌡️ 11° / 5° 🌧️

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**.
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Zorionak, **Elixabete**, zure bederatzigarren urtegunean etxeko guztien partez. Ondo pasa eta gozatu zure eguna, familia eta lagunekin. Besarkada eta musu handi bat.



Abenduaren 4an **Garazi Ugartetxeak** urteak egiten ditu. Zorionak etxeko denen partez.



Bizimodua nekoso da batzuetan baina “Jantzi lekura” iristerakoan mmmm, Ze ederra! E, **Helene**! A ze ZORIONA!



Gure etxeko txixikak urtetxo bat egingo du abenduaren 5ean. Muxu potolo bat, **Izar**!



Zorionak, **Izeitxo**, etxeko guztion partez. Musu erraldoiak, laztana!



Zorionak, **Manex**! Abenduaren 1ean 5 urte egin dozuz. Mosu potoloa Elorriotik, zure aitxita, amama eta izekon partez. Aupa gure mendizalea!



Gaur aithe **Tomasen** urteguna da. Zorionak familiaren partez! Mosu handi bat.



Zorionak, potxolo! Jarraitu beti bezain alai eta zoriontsu! Muxu asko familia osoaren partez! Laster ikusiko dugu elkar!



Zorionak, **Luar**! Hilaren 6an 4 urte egingo dituzu. Mosu bat etxekoan partez.

Azoka gehigarria



AI AMA

JAN TA EDAN
DURANGO

Josemiel Barandiaran Kalea, 2,
48200 Durango
946 23 22 40



Arriluzea 2 baxua (Tabirako auzoa)
48200 Durango
946 81 13 84

NAPOZT

Josemiel Barandiaran Kalea, 6,
48200 Durango
946 00 40 86

PLATERUENA

ABENDUAK 4, barikua

19:30-20:30 KAI NAKAI. (Kontzertua)

ABENDUAK 5, zapatua

11:00-11:30 HABI. KOLOREAK. (Disko aurkezpena)

12:00-12:40 AMORANTE. Bat edo hiru (Disko aurkezpena)

13:15-13:50 IZATE FALTSUA. Amorrubizia (Disko aurkezpena)

14:30-15:00 XSAKARA. (Disko aurkezpena)

15:30-16:10 MOXAL. Arrebetxe (Disko aurkezpena)

16:45-17:20 MIHISE. Kronika (Disko aurkezpena)

18:00-18:30 BULEGO. Bulego (Disko aurkezpena)

19:00-19:40 MARLIK. Azaletik ezabatu baino lehen (Disko aurkezpena)

20:15-20:50 BIZARRO. Deshumanizazioa (Disko aurkezpena)

ABENDUAK 6, domeka

11:00-11:30 PATXUKO NICE. Quim-en argazkia. (Disko aurkezpena)

12:00-12:40 FUFU. Lerdea (Disko aurkezpena)

13:15-13:50 BASABI. Kronos (Disko aurkezpena)

14:30-15:00 ADDAR. Sugarra. (Disko aurkezpena)

15:30-16:10 AGUXTIN ALKHAT. Hutsaren hatsa. (Disko aurkezpena)

16:45-17:20 MIKEL URDANGARIN. (Disko aurkezpena)

18:00-18:30 MILA MODU. Absurdoaren paradisia. (Disko aurkezpena)

19:00-19:40 RAFA RUEDA. Rueda (Disko aurkezpena)

20:15-20:50 GATIBU. (Disko aurkezpena)

ABENDUAK 7, astelehena

11:00-11:30 NAX AGIRRE. Musu. (Disko aurkezpena)

12:00-12:40 TRIKIDANTZ. Bizitza gozatu (Disko aurkezpena)

13:15-13:50 MIREN ETA ROBERTO ETXEBARRIA. Hamaikatu kopla... pandero baten konture (Disko aurkezpena)

14:30-15:00 DENA EZER SENTITZEKO (Disko aurkezpena)

15:30-16:10 ETORKIZUN BELTZA. Ekaitzen osteko sua (Disko aurkezpena)

16:45-17:20 HIBAI. Goxokiak (Disko aurkezpena)

18:00-18:30 ELI + MANEX PAGOLA. Bertso musikatuak (Disko aurkezpena)

19:00-19:40 LIHER. Hemen herensugeak daude (Disko aurkezpena)

20:15-20:50 ZETAK. (Disko aurkezpena)

ABENDUAK 8, martitzena

11:00-11:30 KORRONTZI + XABIER AMURIZA. Koplariak. (Disko aurkezpena)

12:00-12:40 HAXOTZ. Lore hilak (Disko aurkezpena)

13:15-13:50 PEIO ETA ITSUA. Jostailua eta harria (Disko aurkezpena)

14:30-15:00 SILICIES GRIZZLIES (Disko aurkezpena)

15:30-16:10 MARIA RIVERO. Parentesiak (Disko aurkezpena)

16:45-17:20 RAITX. Abereek entzungo balute (Disko aurkezpena)

18:00-18:30 KOHATU. Oskolak (Disko aurkezpena)

19:00-19:40 BRAULIO. (Disko aurkezpena)

20:15-20:50 PANTXIX BIDART. (Disko aurkezpena)



Kohatu.



Peio eta Itsua.



Korrontziko Agus Barandiaran eta Xabier Amuriza.

STREAMING

ABENDUAK 5, zapatua

14:30 PIRATA ARRATOIA. Zineuskadi (Film emanaldia)

ABENDUAK 6, domeka

14:30 OIN HANDIREN SEMEA. Zineuskadi (Film emanaldia)

ABENDUAK 7, astelehena

14:30 UMEENTZAKO FILMEA. Zineuskadi (Film emanaldia)

Bizitza zoragarria da atsedean hartuz gero.

Zure premiak erantzuteko prest izango gara:

bed's koltxoi - denda
Alluitz 1, Durango
T. 944 005 980

bed's
el descanso y tú

KOLTXOIAK | OHE-OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

Bulegorako ziguiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Mendraka
Bizkaiko Txakolina

Elizalde Baserria
Mendraka auzoa, 1 ELORRIO
Tel.: 94 682 00 00

Anboto
TABERNA JATETXEA

Goienkale kalea, 14
Durango - Tel.: 946 811 020



**Azkeneko
aukerak**

IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

LANDAKO

ABENDUAK 4,
barikua11:00-12:00 IKASLE GOIZA DA
(Elkarrizketa saioa)18:00-19:30 INAUGURAZIO
EKITALDIA (Azokaren lehen taupaDA)ABENDUAK 5,
zapatua

10:30-11:30 ITSAS HARIAK (Antzerkia)

10:30-11:30 KORALAREN DISTIRA
(Ipuin kontaketa)10:30- 11:30 LORERIK GORRIENA
(Aurkezpena)12:00 EMAKUMEAREN PRESENTZIA
MUSIKA INDUSTRIAN, COVID19AREN
GARAIA. Musika Bulegoa (Mahai-ingurua)13:30-14:30 LEIRE BILBAO. Etxeko urak.
(Solosalidia)13:30-14:30 ASISKO URMENETA ETA
JOSEBA LARRETXE. Basolatik berri onik
ez. (Solosalidia)16:00-17:00 JAKOBA REKONDO.
Etxeko landareak. (Elkarrizketa)16:00-17:00 LOREA AGIRRE ETA
IDURRE ESKISABEL. Aralar, mundua leku
den lurra. (Elkarrizketa)16:00-17:00 IKER BADIOLA. Behin
Zegama-Aizkorin parte hartu nuen.
(Elkarrizketa)17:30-18:30 MIREN AGUR MEABE
ETA ANE PIKAZA. Begiak zerumugan.
(Solosalidia)17:30-18:30 ANTIXINE MENDIZABAL.
Odolekoak. (Solosalidia)19:00-20:00 ZERGAITIK
DA ZUZENEO KULTURA
ORDEZKAEZINA? (Mahai-ingurua)ABENDUAK 6,
domeka10:30-11:30 BARTOXEKO
OLENTZERO. (Irakurketa)10:30-11:30 GALTZAUNDI,
GALTZAMOTZ ETA GALTZAJARIO.
(Aurkezpena)10:30-11:30 LAINO TXIKI, EGIZU
NEGAR POLIKI. (Ipuin kontaketa)10:30-11:30 XABIER LETE TTIKI
(Aurkezpena)12:00-13:00 EUSKAL LITERATURA
SORKUNTZA: ETA ORAIN ZER?
(Mahai-ingurua)13:30 JOSEBA GABILONDO. Babel
aurretik (Solosalidia)13:30-14:30 JOSU OZAITA ETA
JOSEBA LARRETXE. Gau beltza
(Solosalidia)16:00-17:00 HEMENDIK: EUSKAL
HERRIKO 50 OBJEKTU IKONIKOREN
ISTORIOAK (Elkarrizketa)16:00-17:00 ARANTZAZUKO
EGUTEGIA, 75 URTE (Elkarrizketa)16:00-17:00 POTT ALDIZKARIA, 40
URTE (Elkarrizketa)17:30-18:30 YURRE UGARTE. Lilurabera
(Solosalidia)17:30-18:30 JULE GOIKOETXEA. Euskal
demokrazia patriarkala (Solosalidia)19:00-20:00 KIMUAK FILM
LABURRA. (Solasaldi)ABENDUAK 7,
astelehena10:30-11:30 AMONA TOMAXAREN
ABENTURA (Aurkezpena)10:30-11:30 FAMILIA DESBERDINAK
(Aurkezpena)

10:30-11:30 ZIRIMIRIA (Aurkezpena)

12:00-12:30 DIGITALIZAZIO
PROZESUA ETA KULTUR JARDUERA.
(Mahai-ingurua)13:30-14:30 UXUE ALBERDI.
Dendaostekoak. (Solosalidia)13:30-14:30 FERNANDO REY + ADUR
LARREA. Sherlock Holmes + Odolik Gabe.
(Solosalidia)16:00-17:00 ASIER LARRINAGA.
Euskara kolokialaren eskuliburua. (Elkarrizketa)16:00-17:00 KARLOS OTEGI. Euskal
literaturaren antologia. (Elkarrizketa)16:00-17:00 ASTOLA, HISTORIA ETA
IKERKETA URTEKARIA. (Elkarrizketa)17:30-18:30 BERNARDO ATXAGA.
Killer bat autopistan. (Solosalidia)17:30-18:30 LOUISE MICHEL + AMAIA
LASA. Erbesteko gutunak Victor Hugori.
(Solosalidia)19:00-20:00 IRAKURKETA
DRAMATIZATUAK (Antzerkia)ABENDUAK 8,
martitena

10:30-11:30 KOKOJOKOA (Aurkezpena)

10:30-11:30 LIBURU BABY KLUBA
(Ipuin kontaketa)10:30-11:30 MIRU, ZORIONTSU
IZATEKO SORTU GARA (Kontzertua)12:00-13:00 TAUPADAZ TAUPADA!
(Mahai-ingurua)13:30-14:30 KATTALIN MINER.
Turista klasea. (Solosalidia)13:30-14:30 GANBILA BILDUMA.
(Solosalidia)16:00-17:00 ANDONI OLARIAGA.
Euskal Matxinada. (Elkarrizketa)16:00-17:00 PAKO SODUPE.
Pako: Emilio Lopez Adan. Euskal iraultza.
(Elkarrizketa)16:00-17:00 IÑAKI EGAÑA. El Proceso
de Burgos 50 años después (Elkarrizketa)17:30-18:30 JUAN CRUZ IGERABIDE.
Noiz arte arrazoi. (Solosalidia)17:30-18:30 DANELE SARRIUGARTE
+ AMAIA ASTOBIZA. Gure historia da
etorkizuna. (Solosalidia)EUSKOTZARAK-EK GURE GASTRONOMIA
ESKEINTZEN DIZU OPARI BATEN BITARTEZ20 URTEKO
ESKARMENTUAGOURMET
PRODUKTUAKOPARIAK
ETA OTZARAKBereziki aukeratutako gourmet
produktuak aurkezpen berezi batekin.
Opari ikaragarria dastamenerako.OPARIAK
OTZARAK
ELIKADURA
TRADIZIOA

NESKA GAZTEOK ~~EZ DUGU~~ ~~KULTURARIK~~

Leire, 25 urte.

Arte eszenikoen zale amorratua, zinema, musika eta hizkuntzak ikasten ditu aktore-lanetan ari den bitartean.

HEMEN GAUDE,
ZURI LAGUNTZEKO PREST

Deskontuak eta
zozketak ikuskizunetan
zein jaialdietan K26/26+
txarteekin.

EZ DA ERRAZA
GAZTEA
IZATEA


ARE GUTXIAGO GARAI ZAILETAN

KUTXABANK
KORNER
kutxabankkorner.eus

* K26 txartela: 18-26 urte. K26+: 27-30 urte.

Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. Tomoa: 5226; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa: 1; Inskripzioa: 1.

ZU NON, HAN DA!

AMURRIO (Burubio)IZATEFALTSUA + RODEO -
Abenduak 6. **18:00**SARA ZOZAYA - Abenduak 7. **19:00****ATARRABIA (Totem)**LIHER + SORKARI - Abenduak 5. **18:00**KALEKO URDANGAK + PERLATA -
Abenduak 6. **18:00****AZPEITIA (Soreasu)**GATIBU - Abenduak 5, **19:00**
*Aforoa beteko balitz, bigarren emanaldi bat antolatuko da, 16:00etan.**AZPEITIA (Sanagustin)**SUA - Abenduak 8. **19:00****BERMEO (Kafe Antzokia)**GATOM + J MARTINA - Abenduak 6. **18:00**JOSEBA IRAZOKI + INOREN ERO NI -
Abenduak 7. **18:00****BILBO (Euskalduna)**ENE KANTAK - Abenduak 7 eta 8. **12:00**ZEA MAYS - Abenduak 7. **19:00**NØGEN - Abenduak 8. **19:00****DONOSTIA (Dabadaba)**SILICIES GRIZZLIES + KYXO -
Abenduak 5. **18:30**DENA + HABI - Abenduak 6. **18:30****DONOSTIA (Doka)**RAITX + BURRUNDARIA -
Abenduak 7. **18:00**MIHISE + KASKEZUR - Abenduak 8. **18:00****GASTEIZ (Jimmy Jazz)**BRIGADE LOCO + BARNE GUDA -
Abenduak 6. **18:00**AMORANTE + MOXAL - Abenduak 8. **18:00****ONDARROA (Beikozini)**DUPLA + NIKOTINA - Abenduak 6. **18:00**PATXUKO NICE - Abenduak 8. **17:00**EZPALAK - Abenduak 8. **19:00**

Azoka digitaleko biltegia Landako Gunean.

100 kultur ekitaldi baino gehiago antolatuko dituzte Durangoko Azokan

2.300 produktu baino gehiago egongo dira salgai Internet bidezko dendan: 'durangokoazoka.eus' webgunean

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Ezohiko azokak atek zabalduko ditu gaur. Euskal kulturaren taupadak etenik ez izatea dute helburu. Aurten ez da posible izango Durangoko kaleak euskaltzalez beteta ikustea, baina horrek ez du esan gura euskal kultura euskaltzaleen etxeetara helduko ez denik. Aurten 2.300 produktu baino gehiago egongo dira salgai Durangoko Azokaren sareko dendan, *durangokoazoka.eus* atarian. Horietariko 852 nobedadeak izango dira. Emanaldietarako erreserbak ere atari horretan egin behar dira.

Orain arte, desioen saskia betetzeko aukera eskaini dute webgunean. Gaurtik aurrera, auke-ratutakoaren bitartez desioen saski hori errealitate bihurtuko du erosleak.

Aurtengo Durangoko Azokak gune bi izango ditu denda digitalaz gainera. Plateruenean diskoen aurkezpenak egingo dituzte. Bertatik igaroko dira, besteak beste, Gatibu,

Mikel Urdangarin, Zetak eta Kohatu talde berriztarra. Gainerako kultur ekitaldiak Landako Gunean egingo dira. Idazleen artean, besteak beste, honako sortzaileek parte hartuko dute Azokan: Uxue Alberdik, Bernardo Atxagak, Jakoba Errekondok eta Andoni Olariagak. Kultur ekitaldi guztiak streaming bidez jarraitu ahalko dira, Azokaren webgunean.


Aurtengo Durangoko Azokak gune bi izango ditu: Plateruena eta Landako Gunea

55. Durangoko Azokak Ikasle Goizagaz zabalduko du astea, gaur. Arratsaldean, "Azokako lehenengo taupaDA!" ekitaldia egingo da, eta, besteak beste, Bagara dantzak kolektibo durangarrak parte hartuko du bertan.



Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxe: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com



LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2021

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria Liburudenda
	Hitz Liburudenda
ELORRIO	Ilargi
IURRETA	Iurreta kopistegia
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia
ZORNOTZA	Ayerdi



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

“Orokorrean, gorputzari entzuteko ohitura galdu dugu egungo gizartean”

Bagara kolektiboak Durangoko Azokaren inaugurazio ekitaldian parte hartuko du, Eñaut Elorrietagaz eta Kirmen Uribegaz



Ane Gabilondo, Maider Etxegibel eta Uribarri Atxotegi.

DANTZA • ARITZ MALDONADO

2018an, Ane Gabilondo eta Uribarri Atxotegi elkarregaz dantzan hasi ziren, lehenengo proiektuak sortzen. Gerora, Maider Etxegibel batu zitzairen eta hiruren artean Bagara dantza kolektiboa sortu dute. Durangoko Azokaren inaugurazio ekitaldian parte hartuko dute. Orain artean ikerturikoaren eta sortutakoaren lagin bat erakutsiko dute bertan. 18:00etan hasiko da inaugurazio ekitaldia.

Bagarak udaberrian eman zituen lehenengo pausoak.

Uribarri Atxotegi: Ane eta biok 2018an hasi ginen gure lehenengo

lanak plazaratzen. Aurtengo udaberrian hirurok Euskal Herrian batu gara, eta proiektu honi hasiera ematea erabaki genuen.

Ane Gabilondo: Dantza espazioa okupatzeko modu konkretu bat izanda, orain hutsik geratu diren espazioak berriro okupatu behar ditugu norbanako lez. Zelan birkonkistatuko ditugu?

Maider Etxegibel: Ikerketa teorikoa hasi genuen horrela, espazioa okupatzeko modu desberdinekin, zelan espazioak gu kondizionatzen gaituen, eta baita zelan baldintzatzen dugun guk espazio hori berriro. Ikusi dugu badagoe la analogia bat eskulturaren eta

dantzaren artean. Espazioa eta eskultura ikertu ditugu; Jorge Oteizaren lanak aztertu genituen, formagaitik baino gehiago, espazioaren eraginagaitik, hutsa edo kontentzia landu ditugu. Chillidaren obra ere ikusi genuen. Eskulturaren paralelismo bat dago formekin, eta egurra eta burdina ere badaude gure piezan.

Eta Gerediagaren deia etorri da.

U.A.: Ikerketa horregaz sorkuntza gorpuzten hasi ginen, zelanbait esateko, zerbaiten ernamuina. Inprobisaziorako ere bazen abiapuntua. Eta Gerediagako proposamena jaso ostean, ikerketan ikasitakoa hona bideratu dugu.

M.E.: Pieza labur bat izango da, orain arte ikertutakoaren eta egin gura dugun ibilbidearen lagin bat.

Durangoko Azoka ez da plaza txikia.

U.A.: Azokaren testuingurura ekarri dugu gure proposamena. Gure pieza humanoa da, kulturen aldarrikapenagaz bat egiten duena, sektorea prekarioa eta ezegonkorra den une batean. Momentu honetan zerbait sortzea garrantzitsua da, eta zer esanik ez aurkeztea, are gehiago publikoaren aurrean bada.

M.E.: Kolektiboaren indarra transmititu gura dugu, gizakiaren bateratzetik sortu daitekeen indar hori.

A.G.: Ez da hiru piezak osaturiko lan bat izango. Pertsonaiak ditu, eta paisajeak. Jolas bat izango da, hiru gorputzez osaturiko gorputz baten jolasa. Galdera-erantzun jolas bat dago, erresonantziekin.

Dantza ezagutza ematen ari da diziplina artistiko lez? Durangaldean dantzari gehiago ikusten den sentazioa dut.

M.E.: Orokorrean, gorputzari entzuteko ohitura galdu dugu egungo gizartean. Esan daiteke orain hasi garela emozioei garrantzia ematen. Tristeziaren abaniko guztia espezifikatzen hasi gara, baina sentazio fisikoei dagokienez, ez ditugu oso garatuta.

A.G.: Horregaitik da dantzaren apustua interesgarria eta iraultzailea. Dantzak ez diolako produktibitate kapitalista horri erantzuten.

“

Kolektiboaren indarra transmititu gura dugu, gizakiaren bateratzetik sortu daitekeen indar hori”

■

U.A.: Non ikustarazten dira dantzariak? Musikari gazte batek, adibidez, hor ditu gaztetxea edo areto bat. Baina dantzariok ez dugu espazio askorik; beharbada, dantza akademia bateko kide bazara, edo euskal dantzen kasuan herrietako plazak. Jaien testuinguruan, adibidez, txosnetan ez da dantza emanaldirik egoten, eta hor jende askok ikusi ahalko luke dantza.

Zelan moldatzen zarete entseguak egiteko?

A.G.: Guk ez dugu gauza handirik behar entseguak egiteko. Zoru bat, berotasun apur bat eta musika ekipo bat, besterik ez. Baina minimo horiek behar ditugu. Zorua gogorra izatera, adibidez, lesionatu egin gaitzek.

U.A.: Entseatzeko espazio eza igarri dugu. San Agustinez gainera, Getxoko Utopian eta Bilboko Punto de fugan ere egoteko aukera eskaini digute.



**DESGUACES
PILASTRA**

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketa
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

☎ **Administrazioa, bajak eta faxa:** 946 218 079

☎ **Osagarrien salmenta:** 946 201 787

e-mail: desguacespilastra@gmail.com

📍 Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatía

Muruetatorre, 2D - 48200 Durango / pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

Inoiz baino
gehiago,
gure kulturaz
maiteminduta



Hemengoa
izatea ona da



EROSKI

zurekin

“Hasieratik argi izan dugu Azoka antolatu gura genuela, ahal genuen neurrian behintzat”

Azokak aurten ere ez du hutsik egingo; digitalean eta herririk herri Azokaren taupada bizirik mantetzea da helburua



Nerea Mujika Ulazia
Gerediaga elkarteak
presidentea
Durango | 1960

DURANGO • JONE GUENETXEA

Zelan edo halan, Gerediaga elkarteak Azoka antolatzea erabaki du. Aurten euskaltzaleak Durangora etorri beharrean, Azoka joango da euskaltzaleen etxeetara.

Zein sentsazioz abiatuko duzue Durangoko Azoka?

Ba, egia esan, zaila da aurtengo sentsazioak laburbiltzea. Azken hileotan ziurgabetasun handia izan dugu, ez genekielako Azoka zein modutara antolatzeko aukera izango genuen. Baina hasieratik argi izan dugu Azoka antolatu gura genuela, ahal genuen neurrian behintzat. Erronka handia izaten

ari da guretzat egoera honetara egokitzea, baina baikor gaude. Badakigu aurtengo Azoka ez dela berdina izango, ez dugula jendetzarik ikusiko Durangon, baina behintzat lortu dugu Azokako taupada bizirik mantentzea eta euskal kulturari bultzada ematea.

Zaila izan da aurten zein Azoka mota antolatu zitekeen erabakitzea?

Bai, hamaika plan izan dugu esku artean, egoera ezberdinetara egokitzeko. Batzuetan asterik astera aldatu behar izan ditugu gure aurreikuspenak, osasun egoera ere aldatzen zebilelako eta ez genekielako Azokako datetara zelan helduko ginen. Internet bidezko denda eta streaming bidezko egitaraua mantenduko genituela argi izan dugu, baina zalantzak izan ditugu azken unera arte aurrez aurreko egitarauagaz. Azkenean, aurrez aurreko egitarauari eutsi ahal izango diogu eta Durangoko eta mugakide diren herrietako bizilagunek jardueraz bertatik bertara gozatzeko aukera izango dute.

Sektore osoa oso kaltetuta dago. Zein giro sumatzen duzue kultur gileen artean?

Kezka handia igartzen dugu sektorean. Pandemiak oso gogor kolpatu ditu gure gizartearen sektore guztiak, eta modu berezian kulturgintza eta euskalgintza.

Sortzaileak, argitaletxeak, diskotxeak, teloiaren atzean lan egiten duten teknikariak, aretoak, kultur taldeak... oso egoera gordina izaten ari da denontzat. Are larriagoa da sortzaile hasiberrien kasuan, eurek ez dutelako ikusgarritasun edo bitarteko ekonomiko nahikorik euren ibilbide artistikoa hasteko, eta hori oso kezagarria da euskal kulturaren etorkizunarako. Eurak kezkatuta daude, eta gu ere bai.

Herririk herriko egitaraua prestatu duzue?

Bai. Mugikortasun ezarpenen ondorioz, aurten Durangoko eta mugakide diren herrietako bizilagunek gozatu ahal izango dute Durangoko egitarauaz. Hori dela-eta, ahalegindu gara Azoka Euskal Herrian zabaltzen eta ahalik eta kulturzale gehiagorengana heltzen. Zortzi herritan antolatu ditugu kontzertuak: Amurrión, Atarrabian, Azpeitian, Bermeon,

“

Zalantzak izan ditugu azken unera arte. Azkenean, aurrez aurreko egitarauari eutsi ahal izango diogu”

—

Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Ondarroan. Ipar Euskal Herrian antolatzen ere ahalegindu gara, baina osasun neurrien ondorioz ez da posible izan.

Egitasmo horren beste ardatz bat liburu-dendekin lotuta dago.

Bai, hori da “Zu non, han DA!” egitasmoaren bigarren ardatza. Abenduaren 4tik 8ra Internet bidezko denda izango dugu durangokoazoka.eus webgunean, eta normalean Landakon topatzen diren produktuak izango ditugu eskura bertan: diskoak, liburuak, ikus-entzunezkoak, papergintza... Azoka amaitzerakoan, liburu-denden txanda helduko da eta kulturzaleek Azokako hainbat produktu topatu ahal izango dituzte han.

Plateruenak ateak itxiko ditu urte amaieran. Amesten hasita, aurretiaz zein motatako proiektua gustatuko litzaizuke bertan?

Bai, pena handiz jaso nuen albiste, benetan. Euskal kulturgintzarentzat erreferentea izan da Plateruena, Durangon bertan eta Durangotik kanpora ere. Euskal kulturari lotuta jarraitzea gura nuke, eta euskalgintzarentzat topagunea izatea.

Zein mezu helarazi gura zenieke Durangora urtero etortzen direnei?

Aurten Durangoko Azoka beste modu batera bizitzeko gonbita egin gura nieke: streaming bidez egitarauaz gozatzeko, sareko dendan kuxkuxeatzeko, euren ahalmenaren arabera denda horretan erosteko, sortzaile berriak ezagutzeko... Gura duten eta ahal duten moduan, euren taupada emateko euskal kulturari, inoiz baino beharrezkoagoa izango da eta.

AXA
AMALUR ASEGURUAK, S.L.
amalur.asegurua@agencia.axa.es
www.amalur.agenciaaxa.es

AXA DURANGO KURUTZIAGA
Kurutzia, 26 DURANGO
94 681 60 22 / 94 658 47 03
688 60 12 30

ROTU-NET
ERROTULUAK

- Furgonetak
- Erakusleihoak
- Pabiloi industrialak
- Letra gorpuzdunak PVC, INOX, etab.
- Oihala eta olana inprimaketa

www.rotunet.net 94-681 26 81

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Zubiurre, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

LAPUR ERROTA
• GASTRO EXPERIENCE •

Fray Juan de Zumarraga, 31 DURANGO
Tel.: 946 81 54 44
www.lapurerrota.com
PARKING PRIVATUA

ERRETEGIA - PUB - PIZZERIA

Pizzak, hanburgesak eta fundiduak
Okela eta arraina txingarretan erreta
Askotariko Gin-tonicak.
Pub-a astean zehar
02:30ak arte zabalik eta asteburuetan
04:30ak arte.

* Etxera eramateko zerbitzua Bapo-Baporekin!

MONTÓ
DURANGO MARGOAK

Pintura guztiak ez dira berdinak. Uno Zero.

Bakteriorik gabe • Lizunik gabe •
Usainik gabe • Emisiorik gabe

DURANGO MARGOAK
Askatasun Etorbidea, 9
DURANGO
Tel.: 946 40 88 20
www.durangomargoak.com

KURUTZIAGA IKASTOLA

BIZITZEKO HEZI



ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa
eta produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus

“'Izurdeen lekua' dolutik idatzi dut, mundu lainotsu batetik, mundu magiko batetik”

Mikel Urdangarin musikari zornotzarrak 'Izurdeen lekua' lana aurkeztuko du abenduaren 6an, 16:45ean, Plateruenean



Mikel Urdangarin Abasolo
Musikaria
Zornotza | 1971

MUSIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mikel Urdangarinnek pianoaren aurrean eserita konposatu du bere azkenengo lana: 'Izurdeen lekua'. Abenduaren 6an aurkeztuko du, Plateruenean.

'Izurdeen lekua' kaleratu duzu. Zer topatuko du entzuleak disko hone-tan?

Hamaika kantu berri, batez ere. Bizitzaren nabilen momentu jakin bat islatzen duen lan bat, urte bi

eskasean egindakoa. Nire bizitzako zatitxo bat islatzen du. Zati horretan buruan erabili ditudan soinua islatzen ditu.

Zuretzat zer suposatzen du lan honek?

Lan berri bat egiten duzun bakoitzean emozioak berjaitzen dira. Egin dudana hainbatgarren lana da eta konturatzen naiz beti dela ezberdina, baina beti dela antzekoa. Ez gara atzokoak baina ez gara herenegungoak ere, eta, beraz, normala denez beti da ezberdina. Baina emozio indartsu bat sentitzen duzu, emozio horretan dago ilusioa, kezka eta zalantza daude, besteak beste.

'Izurdeen lekua' abestiak ematen dio izena diskoari.

Izurdeen lekua apiril amaieran maiatz hasieran jaio zen, konfinamenduari azkenetara. Ondarroar batek txundituta deitu zidan. Ondarroan, Atxazpi inguruan, izurdeak zebiltzala esan zidan. Poztu eta harritu egin nintzen, bera hain harrituta ikusita. Eta harridura hori, izurdeak bere tokian ez zeudelako baino gehiago, ez ote dator guk geuk galdutako genuelako geure lekua sasoi hartan. Harridura geurea da, ez izurdearena. Esan gura dut bizi genuen sasoi horrek piztu zuela harridura, ez piztien bizitzak. Hor badago gogoeta bat bizi genuen garaiari buruz.

Bestetik, kantua badu beste interpretazio bat ere. Ikusi genuen hainbat basapiztik euren tokia berreskuratu zutela, eta gu harritu egin ginen. Eta nire galdera da musikariok ere ez ote dugun harridura bera sortzen jende batengan, dedikatzen gareleko dedikatzen garenera.

Azken lanean amari abesten diozu.

Bai, diskoko hirugarren abestia. *Hiru ahizpatik bigarrena* abestia aipatzen dut, izen eta abizen. Bera ez litzateke ados egongo, oso diskretua zen eta. Gure kontrara, beti fokuetatik kanpora. Badago jendea bizitza bide isil batean pasatzen duena, molestatu bari-rik, eta horietariko bat zen gure ama. Isiltasun hori konpentsatzeko beharrezkoa nuen nik. Gura nuen ez bakarrik ama aipatu, baizik eta kantatu eta ahal banuen indartsu kantatu. Amaren bizitzaren atzean epika dago, borroka epiko bat. Eta hori islatu gura nuen. Ez nuen aho txikiagaz abestu, garrasi egin gura nuen. Amaren arima zenbait kantutan agertzen da. Disko honek doluan harrapatu nau. Horrek ez du esan gura doluari abestu diodanik, ezta minari ere. *Izurdeen lekua* dolutik idatzi dut, mundu lainotsu batetik, mundu magiko batetik. Gatx bada sinisten ere, doluak badu bere alde ederra.

Gitarra alde batera utzi eta pianoagaz konposatu duzu oraingoan. Zer dela-eta aldaketa?

Era naturalean etorri da. Azken lau urteak pianoagaz lanean pasatu ditut, orain dela gutxi amaitu dudana bira bat prestatzen. Lehenago ez nekien eta 2017an hasi nintzen pianoa jotzen. Disko honek horrela harrapatu nauenez, gitarra alde batera utzi eta pianoagaz konposatu dut. Musika ateratzeko beste modu bat ekarri dit pianoak.

'Izurdeen lekua'-n izan duzu kolaboratzailerik?

Bai, gonbidatu bat izan dut, Alison Keable. *Margolaria* lanean ere abestu zuen eta oraingoan kantu baterako ekarri dut. Niretzat oso kolaborazio garrantzitsua izan da. Hain justu, Alisonek Arkaitz Canoren letra daraman abesti batean kantatu du, *Ura dakartzut* abestia. Horrez gainera, Kirmen Uriberen esalditxo bat daraman kantu bat ere badago. Kantu laburra, esaldi bakarduna. *Oh* izeneko. Nik poema batetik lapurtutako esaldia da hau. Berak oraindino ez daki. Berari grazia egitea espero dut.

Lana *Zart Kolektiboagaz kaleratu duzu. Zer da kolektibo hori?

*Zart Kolektiboan sei lagun gara eta helburu berberak partekatzen ditugu. *Zart Kolektiboak Harkaitz Canok, Elixabeth Macklindek, Alain Urrutiak, Oier Arazanbalek, Rafa Ruedak eta nik neuk osatzen dugu. Elkarlana bultzatu gura dugu eta gure gerizpetik kanpora elkarlan hori sorrarazi gura duen talde bat da gurea. Horrez gainera, ardura eta anbizio berdinak ditugu, euskara dugu ardatz. Gure ahaletik munduan eragin gura dugu.

C E R A M I C A S
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

Folder
DURANGO

*2006-tik
zurekin
batera
jotzen*

**ARTE EDERRAK
TAILERRAK
KALIGRAFIA
ESKOLA MATERIALA
BULEGO MATERIALA
ZERBITZU OROKORRAK**

687 392 205 / 946 217 342
ZUMALAKARREGI 10, DURANGO
FOLDERDURANGO.COM

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxe: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

UNAI GARAY

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

hitz *artekalea 23, durango*
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Jaso liburuak zure etxean!

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu
686 214 964

bizum -ez ordaindu

ARGITALPENAK – NOBEDADEAK

**Fontes Linguae Vasconum
50 urte.
Ekarpen berriak euskararen
ikerketari**

**Argitaratzaileak: Ekaitz Santazilia,
Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga eta
Borja Ariztimuño**

Fontes
Linguae Vasconum
50 urte. Ekarpen berriak
euskararen ikerketari
Nuevas aportaciones al
estudio de la lengua vasca

Argitaratzaileak / Editores
Ekaitz Santazilia
Dorota Krajewska
Eneko Zuloaga
Borja Ariztimuño

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



JOKIN LANZ BETELU

Los vascones y sus vecinos
(siglos II a. C.-VIII d. C.)

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

**Los vascones y sus vecinos
(siglos II a.C.-VIII d.C.)**

Idazlea: Jokin Lanz Betelu

Argitalpen denda:
Navas de Tolosa, 21-behea 31002 Iruña
Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara

Publicaciones.navarra.es

**Gobierno
de Navarra**



**Nafarroako
Gobernua**



Marrazketagaz eta sormenagaz lotutako 'Kokojoko' bideojokoa aurkeztuko dute Durangoko Azokan, abenduaren 8an, 10:30ean. Harrobi ikastolagaz garatutako proiektuaren abiapuntua Eider Eibar ilustratzaileak sortutako 'Kokoak' dira

A woman with dark hair tied back, wearing a red sweater, is smiling and holding a laptop. The laptop screen displays the 'Koko Joka' logo, which consists of the words 'Koko' and 'Joka' in large, blue, stylized letters. The letters are decorated with various colorful patterns and small cartoon characters. To the right of the text is a cartoon boy with dark hair and a yellow shirt. The background is a cluttered desk with various items, including a blue water bottle, a stack of white plates, a small bowl, and several books or magazines. A large green plant is visible on the left side of the frame.

Eider Eibar ilustratzaile zornotzarrak sortutako Kokoak dira 'Kokojokoa' bideojokoaren pertsonaiak.

Kokoak projektu pertsonalean dago

oinarrituta bideojokoa. Kokoak eura-
rak eta hauen filosofia bideojokoa-
ren ardatz direla, marrazkiekin
jolasteko aukera eskaintzen du,
bideo-edizioagaz eta animazioagaz
esperimentatzeko aukera ere bai.

Bai. Azken finean, Io protagonista koaderno batean sartuko da, Kokoan bila abiatuko da, marrazkirik marrazki. Kokoek oso gustuko dituzte marrazkiak eta irudimena, eta hori islatu gura izan dugu bideojoikoan. Bertan, Kokoan ikus-

**"Batetik, euskaraz
jolastea da helburua.
Bestetik, umeak
sorkuntzan murgiltzea"**

euskaraz sortzen dugu. Bestetik, umeak sorkuntzan murgiltzea: marrazketaren eta jolasaren bitartez, umeak bestelako logika bat duen munduan murgiltzea. Modu sortzaileago batean pentsaraztera eramaten du jokoak, betiko bideetatik apur bat urrunduz. Orokorrean, lau joko batzen ditu: lehenengoan, Kokoen eta marrazketarako objektuen aurkezpena egiten da; bigarrenean, Kokoen logika zoroa ulertuko dugu; hirugarrenean, marrazki berri bat zirriborro batetik abiatuta zelan sortu daitekeen ikusiko dugu; eta, azkenengoan, emozioekin jolasteko aukera eskainiko zaigu. Jokoa sari bat lortuta amaituko da: eskulan bat egiteko bideo labur bat.

4-tik 10 urtera bitarteko neska-mutilei zuzenduta dago. Harrera ona izan du?

Bai, aplikazioak badaude eskuragarri eta oso erantzun ona izan dute. Kokoak edo marrazketa gustuko duen edonork erabili dezake bideojokoa, adin mugarik barik. www.kokoak.eus webgunean dago bideojokoa, jolastu gura duenarentzat.

Bigarren joko batean murgilduta zaudete dagoeneko.

Bai. Kokoei euskarazko berbak
erakutsi gura dizkiegu, irudia eta
euskara guztiz harremandu gura
ditugu. Lagun bi elkartuko zaizkio
Io-ri: Mae eta Ur.

puntutik egingo dugu ibilbide osoa. Euskarak presentzia handia izatea ere gura izan dugu.

Zein helburu izan duzue bideojokoa sortzerako orduan?

Euskaraz jolastea, batetik. Azken finean, gu euskaraz bizi gara.



"Liburuak aita askoren begirada konplizea jaso du"

Leire Bilbao 'Etxeko urak' izeneko poema liburuak kaleratu du, Susa argitaletxeagaz

POESIA LIBURUA • JOSEBA DERTEANO

"Ume bat jaiotzen denean, ama bat ere jaiotzen da", dio Leire Bilbao, eta errealitate berri horretan sortzen diren egoerak, galderak eta sentimenduak poema liburu batean jaso ditu Durangon bizi den idazle ondarroarrak. Amatasuna gaitzat hartuta baino, ama baten begiradatik idatziko 62 poema dira, lau ataletan banatuta. Abenduaren 5ean aurkeztuko du, Landako Gunean.

Edozein sortzaileren obra bere tes-tuinguruak baldintzaturikoa dela esan ohi den arren, zerk eraman zintuen zure errealitate hori poesiagaz islatzera?

Bakoitzak dagoen lekutik idaztea eta bere egia asmatzea garrantzitsua dela uste dut. Ama izatean beste begirada bat sortzen da eta hizkuntza berri bat dakar. Orduan, begirada eta hizkuntza berri horregaz probatu gura nuen, niretzat idazketa berri bat izango zena.

Ama izatean galdera berri asko sortzen direla aipatu izan duzu. Galdera

horiek izan dira poemak sortzeko abiapuntua?

Lehenengo umeagaz batera, ama bat ere jaiotzen da eta guraso izaten ikasi behar duzu. Prozesu bat da. Erditzeaz batera galdera asko erditu zitzaizkidan. Literatura galderetatik abiatzen da eta bakoitzak bere erantzunak bilatzeko modua izan behar da. Horrela ulertzen dut nik fikzioa.

Amatasunaz barik ama izatetik sortzen den begirada berri horretatik idatzitako liburuak dela ere aipatu izan duzu.

Bai. Nahiz eta norbere esperientziatik abiatu, azken finean, ahots poetiko berri bat sortu behar da, norberenaz gainera, beste amena ere izan daitekeena. Ama asko daude nigan, baina beste ama batzuegan ere begirada jartzea izan da helburua, eta egoera horretaz hausnarketa bat egitea poesiagaz baliatuta, ama direnengana zein ama ez direnengana heltzeko asmoagaz.

Baina ama denak hobeto konektatuko du liburuagaz?

Ez da ama direnentzat bakarrik. Esaterako, liburu honek aita askoren begirada konplizea jaso du.

Zelan antolatu duzu liburuak?

Liburuak lau atal ditu. Urak badu zirrikitu guztietatik ihes egiteko dohaina. *Urak* bota du izena lehenengoak. Etxeko uretan lehenengo ura erditzearena da, hau da, urak botatzearena. Orduan diot ume bat jaio dela, baina ama bat ere bai. *Listua* izeneko bigarrenengan, ama izatean sortzen den hizkuntza berriari buruz nabil. Ez da hitzezko hizkuntza bakarrik, baita azalezkoa ere; ez dira bakarrik onomatopeiak eta umeen hizkuntza, bada ere azalaren azpian sentitzen den hizkuntza hormonal hori. Hirugarren atala *Marea* da, hau da, ur asko batzen diren lekua eta beste amei eta gurasoei begiratzen jarraitzen duena. Azkenengoa *Harraska* da; etxeko ur zikinak joaten diren tokiari egiten dio erreferentzia. Azkenengan, amatasunak duen beste garrantzia bat zaintza lana da. Zaintza horretan, etxeko kontuei beste be-



Leire Bilbao Barruetabeña
'Etxeko urak' poesia liburuak idatzi du
Ondarroa | 1978

girada bat ematen zaie, beste *tempo* edo pausa batez. Beste dimentsio bat hartzen du.

Baliabide desberdinak erabili dituzu egoera desberdinak islatzeko: kaligrama bat, erosketa zerrenda bat...

Une oro amatasunaz berba egiten nabilenez, beldur nintzen ez ote zen monotono geratuko. Horre-

gaitik daude jokoak, kaligramak, poemak esaten duenaz haratago ikusi daitekeen irudi bat jasotzen dutenak. Edo erosketa zerrenda bat, guraso zarenean askotan errepikatzen den zerbait delako. Edo bakarriketa bat, ama den eta ez den baten artean ematen dena. Azken finean, literatura jolas bat da.

22 ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZA BERRIA

**LEHEN FASEA
DENA SALDUTA,
BIGARREN FASEA
HASTEAR
AZKEN PISUAK
SALGAI**



ERTZAIN ETXEAREN ONDOKO BIRIBILGUNEAREN
ALBOAN. KURUTZIAGA ONDOAN, **DURANGON.**



**94 681 44 95
650 397 007**

Durangaldeko historia ezagutzeko aukera berria Astolan

Gerediaga Elkartek argitaratzen duen ikerketa eta historia urtekariaren 14. zenbakian zortzi erreportaje berri kaleratzen dira. Durangoko Azokan salgai izango da

Astola aldizkariak Durangaldeko historiaz eta gaur egungo Durangaldeari buruz sakontzeko aukera eskaintzen digu urteroko argitalpenean. Durangaldeko ekoizle ekologikoen katalogo zabal bat eskaintzen digu esaterako, eta eskualdeko herri guztietan aurkitu ditzakegun frontoien edo pilotan jokatzeko bere funtzioa bete eta oharkabean pasatzen diren lekuen argazki bilduma ere bai. Tartean, Durangoko Arripotzuetan, Elorrioko Argiñeta, Otxandio-ko bizilagunak, Arrazolako San Roke ermita eta Durangaldeko lapikogileak protagonista izango dira zenbaki berrian. Durangaldeko eraikinei arretaz begiratu eta arkitektura aldetik zelako garrantzia izan zuten eta oraindino duten ezagutzeko aukera ere badakar aldizkariak.

Ohiko ikerketa-erreportajeekin batera, zinema munduagaz lotura estua duten Durangaldeko bost pertsonaren leku kutuna ezagutzeko aukera dago, eta iazko Astola aldizkaritik gaur arte eskualdeko gertakarien kronika laburrak ere jasota daude.


2020ko zenbakia Durangoko Azokaren bezperan heldu da inprentatik. Beraz, aurten azokaren

sareko dendan izango da eskuragarri betiko prezioan, 5 eurotan. Aurreko urteetan argitaratutako beste zenbaki batzuk ere eskuragarri izango dira denda birtualean. Azoka amaitu eta gero, Durangaldean ohiko liburu-denda eta salmenta-puntuetan izango da eskuragarri. Gerediaga Elkarteko bazkideei dagokienez, aldizkaria doan jaso dezakete elkartek Durangon daukan egoitzan, abenduaren 14tik aurrera.

2007. urtetik

Gerediaga Elkartek 2007an argitaratu zuen Astola ikerketa eta historia Durangaldeko urtekariaren lehenengo alea. Elkarteko bazkide batzuen ekinez, urte hauetan guztietan Durangaldeko bizitzako hainbat arlori buruz egin diren lanen eta artikuluen zabaltzaile izan da ordutik.

Historiak, arkeologiak, etnografiak, folkloreak, literaturak, musikak, eta bestelako gai eta zientzia batzuek izan dute lekua Astolaren orrialdeetan. Gehienak ikerketa lanak izan dira, kasu askotan inoiz argitaratu bakoak edo kaxoi batean ahaztuta geratu izan diren horietarikoak. Hasieratik, lan horiek Astolan izan dute zabalkunde bidea.



Jose Mari Uriarteri bereziki eskainitako urtekaria

Konfinamendu hotzean, lantaldea Astola aldizkaria prestatzen ari zen bitartean, Jose Mari Uriartere lankide eta adiskideak utzi zituen. Bizi izan zen moduan joan zen, zaratarik egin barik, isilik. Ordutik, lantaldearentzat oso zaila izan da lanean jarraitzea. Batzuek uste duten moduan arima existitzen bada, Jose Mari zen Astolaren arima.


Etenik bako behargin nekaezina, denerik egin zuen aldizkarian. Berarentzat lan batzuk ez ziren besteak baino garrantzitsuagoak, denetan bere onena ipintzen zuen.

Aurtengo Astola zenbakian, Jose Mariaren arrasto ikusezin

asko daude, eta bere azken artikulua biak ere bai. Lehenengoak Durangoko lapikogileen historia kontatzen du. Bigarrenak Arripotzuetako presa desagertzeko arriskuaren berri jaso du.

Kulturaren militantea, argazkilaritzaren historialaria, Astarloaren biografoa edo bere ikasleek maite izan zuten irakaslea, baina, batez ere, lagun xume eta eskuzabala izan zen denentzat, eta haren falta igarriko dute.

Askotan esaten da ordezkagarriak garela denok, eta egia da, baina ez guztiz. Betetzeko oso zaila den hutsunea uzten dute pertsona batzuek, eta horietariko bat da Jose Mari.



Gerediagako bazkideek doan eskuratu dezakete, abenduaren 14tik

Urtero lez, Gerediaga Elkarteko bazkideek doan jaso ahal izango dituzte Astola aldizkaria eta 2021eko egutegia.

Aurten, Durangoko Azokan erakusmahairik izango ez denez, Gerediaga Elkartearen Durangoko egoitzan (Larrasoloeta kalea, 3) jaso ahal izango dute ale bana abenduaren 14tik aurrera. Astola aldizkaria eta 2021eko argazki zaharren egutegia, biak, 55. Durangoko Azokaren online dendan salgai izango dira, bakoitza 5 eurotan, eta azoka amaitu eta gero Durangaldeko ohiko salmenta lekuetan ipiniko dituzte salgai.



SOS Arripotzueta
Jose Mari Uriarte

Arripotzueta albiste izan zen orain dela urtebete, etxebizitza batzuk eraikitzeke egitasmo baten ondorioz durangarrek ondo ezagutzen zuten presa kentzea aurreikusten zelako. Erreportaje honetan, Arripotzueta zergaitik eta zertarako eraiki zen azaltzen du Jose Mari Uriartek. Sasoi bateko udako egunak gogoratuko dituzte durangar askok, presagaina gazteen topaleku bihurtzen zen eta.



ARGIÑETA: UN LUGAR DONDE VIVIR HACE 1200 AÑOS
Iñaki Garcia Camino

Elorriko Argiñetan askotan egin dira indusketak. Azkenengoak 2012tik 2014ra bitartean egin ziren. Orain dela 1.200 urte Argiñetako bizilagunak zelan bizi izan ziren jakiteko balio izan dute egindako lanek. Iñaki Garcia Camino arkeologoak Argiñetako nekropoliaren historia ezagutzeko datu berriak batu ditu erreportaje honetan.




EL SOL MIRA A ARRAZOLA A TRAVÉS DE LOS OJOS DEL ANBOTO
Jorge Hernández Bernal

Arrazolan, urtean birritan, Anbotoko begietatik eguzkia pasatu eta San Roke ermitara heltzen da argia. Gertaera astronomiko hori ikertzen ibili da Jorge Hernandez salamancaarra. Ikerketa honetan laburbildu du aurkitutakoa.



ELIKADURA, GURE ARDURA - NEKAZARITZA EKOLOGIKOA DURANGALDEAN
Markel Onaindia

Durungaldean nekazaritza ekologikoa lantzeko sare osoan zehar bidaia egiteko aukera ematen du Markel Onaindiak idatzitako lanak. Ekoizleengandik hasi eta kontsumitzaileak eskura dituen aukerak aurkeztu ditu protagonistekin bilduta.




SANTI KAPANAGA – OTXANDIOKO ERRETRATUGILEA
Txelu Angoitia

50eko hamarkadaren amaieran eta 60koaren hasieran, Santi Kapanagak argazki asko egin zituen bere herrian, Otxandion. Horietariko asko herrikideei ateratako erretratuak izan ziren. Familiakoek utzitako bildumako lan asko argitaratzen dira Astolan Txelu Angoitiaaren testuekin batera.



EL PESO DE LA FORMA – UN CAMBIO DE PARADIGMA
Miren Cortazar – Oier Bizkarra

Azken urteetan, formalismoak eta material berriek arkitekturan lan egiteko molde berriak ekarri dituzte. Durungaldean zehar eta arkitektura modernoaren ikuspegitik, gure eraikinei arretaz begiratzeko gonbitea egiten digun ibilbidea proposatzen digute Miren Cortazar eta Oier Bizkarra arkitektoek.



KATILLUENA – MARKIEGI Y COMPAÑÍA
Jose Mari Uriarte

Platerak, katiluak, kikarak, pitxerak, loreontziak... Durungaldeko lapikogileek egindako piezak milaka izan ziren hamarkadetan. Gaur egun ez da lapikogilerik geratzen, baina Jose Mari Uriartek izan zirenak gogoratzen ditu erreportaje honetan.



HARRIA ETA LARRUA
Atxondo, Ikaslea

Herri guztiek bere frontoia daukate, eta auzoek ere bai. Frontoirik egoten ez zenetan, edozein bazter berezi bihurtzen zen pilota jokoan aritzeko leku. Horietariko asko aurkitu ditugu eta batzuen albotik oharkabean pasatzen gara egunero.

“Kanpotarrek idatzitako historia irakatsi digute, baina ni gertakariak hemengoen begietatik interpretatzen saiatzen naiz”

Mila Salterainek 'Sasiola' izeneko nobela historikoa kaleratu du, Alberdania argitaletxeagaz. Idazlearen hirugarren eleberri historikoa da honakoa



Mila Salterain Jainaga
Idazlea
Durango | 1955

ruaren azalean ageri den margo-lana ikusi zuen behin Bruggen (Flandria), eta koadro hartan ageri ziren beiren osteko hesiak ikusteaz batera azken hogeit urtean bizitakoa gogoratzen hasten da. Manuelak munduan hara eta hona ibiltzeko lagunak behar zituen, protagonistak eskatu ahala, narratzailea Manuelaren bidaideen argibideak eta ibilerak zehazten ahalegin du da.

XVII. mendean kokatutakoa da istorioa, baina iruzurrek eta diru faltsutzeak, gaur egun ere, oso presente daude. Ez gara aldatu?

Iruditzen zait mundua mundu denetik antzerakoak izango direla gizakiengan eragina duten sentimenduak eta grinak. Faltsuketak eta iruzurrak egitera ere arrazoi desberdinek bultzatuko gaituztelakoan nago. Ez da berdina izango premiak bultzatuta egindako faltsuketa eta diru eta boterearen egarriaren egarri egiten diren iruzurrak.

Tituluari erreparatuta. Galdera horri erantzuten al dio tituluak berak? Ordukoa koroaren aurkako matxinada izan zen ala iruzurra?

Eskuragarri dagoen dokumentazioa errepasatu nuenean ondorioztatu nuen faltsutzaileek halako finantza ingeniari bat ere bazeramatela. Ez dirudi gixagaixo-koitada batzuek antolatutako negozio bat izan zitekeenik. Eta hainbeste lagun, zertarako? Hortik abiatu ziren nire susmoak: iruzurra ala matxinada? Gertatu zena jakitea ezinezkoa da, zeren, gordetzen den dokumentazio guztia alde batekoek idatzitakoa da. Halere,

gauza latzak gertatu zirela dirudi. Adin txikiko bati—Martin Aranari—heriotza-zigorra jarri zioten. Surtan erreta hiltzera kondenatua izan arren ezarritako zigorra lau urteko galera-zigorragatik trukatu zioten. Kartzelan hil zen. Horrekin lotuta zeudekeen lorratz bi jasota nituen jada Durangaldean, bata Abadiñoko Leonardo Garatek kontatutakoa eta bestea Izurtzako Felisa Iturriagak. Kokaleku desberdinetan eta hainbaten garai desberdinetan girotutako gertakarietan faltsutzaileetarikoa bat kartzelan hil omen zen, batean itoginean eta bestean taldekide batek tirokatua.

Lehenagotik ere badituzu beste nobela historiko batzuk argitaratuta. Bistakoa da historiaren zale amorratua zarena...

Historiazalea baino gehiago interpretatzailea naizela esango nuke, zeredozer esateagatik. Kanpotarrek idatzitako historia irakatsi digute eta irakasten digute. Ni saiatzen naiz gertakari haiek hemengo, bertakoen, begiekin interpretatzen. Azken finean, historia hori dela uste dut, gertakizun zehatz batzuen interpretazioa, baina noren interpretazioa?

Durangaldeko irakurleentzat berezia izan daiteke 'Sasiola'. Istorioa norbere eskualdean girotzeak jakin-mina piztu ohi du. Zer esango zenieke Durangaldeko irakurleei?

Nobela, gaur egungoa baino zabalagoa den lurralde batean zehar egindako oster bat da nire iritziz. Etxe ingurutik abiatutako fikzioak garai hartako Flandriara eta Ternuara garamatza, gutariko askoren arbasoak handik hona eta hemendik hara ibilitakoak izan zirelako ziurtasunagaz idatzia. Eskerrik asko jarriko duzun arretagatik eta ea gusatzan zaizuen.

ARRAZOLA • EKAITZ HERRERA

XVII. mendean, Arrazolatik hasita, Durangaldean lan egiten zuen diru faltsutzaile talde bat da eleberraren ardatza. Taldean, Otxandioko, Berriko, Abadiñoko, Mañariko eta Aramaioko kideak zeuden. Abenduaren 17an, Durangoko Arte eta Historia museoan aurkeztuko du liburua.

Diru faltsutzaile talde bat, non eta Arrazolan. XXI. mendeko betaurrekoekin kosta egiten da hain ingurune baketsuan halakorik egon zela pentsatzea.

Berrogeita hamar lagun inguru auzipetuak izan ziren, artean gizonetakoak eta andrazkoak zeudela. Arrazolarrez, aramaiarrez, otxandiarrez, mañariarrez, be-

rriztarrez eta abadiñarrez osatutako taldea zen. Artean adin txikikoak ere baziren, garai hartan hogeita hiru urte arterainokoak adin txikikoak baitziren.

Zelan testuinguratu duzu zure istorioa?

XVII. mendeko gertakizunak zirenez, garai hartan plazartu nuen Manuela Mena, bere bizitzako lehen hogeit urtean itsarorik zegoenik ere ez zekien gazteak hurrengo hogeit urteetan munduko itsasoak zeharkatu zituen, garai hartako kulturaz, arteez, ekonomiaz eta politikaz jantzi ditut orduan gertatutakoak.


Manuela Mena gaztearengan gorpuztu duzu istorioa. Zelan eraiki

duzu bere pertsonaia eta nobelako gainerakoak?

Manuela berrogeit urteko andrazkoa da. Azken hogeit urtean bizitzak handik hona eta hemendik hara erabili du. Joan-etorri horietan asko ikusi eta ikasi duen arren antzik eman ezinda dabil bere asku dagoen hamasei urteko nerabearen jatorriari. Libu-

“**Ez dirudi gixagaixo-koitada batzuek antolatutako negozio bat izan zitekeenik**”

#KulturaSeguruaDa



ABENDUAK 18
HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA

— **MAITE ARRESE**
“Yogipuinak III” (Yoga + ipuinak)

Ordua:
11:00 3-5 urtekoak (lagundurik)
12:00 6 urtetik gorakoak



URTARRILAK 4
HELDUENTZAKO IPUIN KONTALARIA

— **VIRGINIA IMAZ**
“La soñadora...”

Ordua: 19:00

Iurreta
Elizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

*Sarrera gonbidapenarekin izango da, Bibliotekan jaso daitezke.